

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

578

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 14koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baitira 2019ko apirilaren 8ko Aginduaren babespean emandako dirulaguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

2019ko maiatzaren 13an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Hezkuntzako sailburuaren 2019ko apirilaren 8ko Agindua. Horren bidez, deialdia egiten zaie Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2019-2020 ikasturtean, hizkuntza-proiektuaren berrikuntza-proiektuei lotuta.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatzi zuen deialdia, eta interesdunei banan-banan jakinarazi zaie ebazpena; beraz, deialdi-aginduaren 14.2 artikulua araberak, argitaratu egin behar dira emandako laguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea, zabalkunde osoa izan dezan, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko apirilaren 8ko Aginduaren bidez deitutako laguntzen onuradunen zerrenda (ikus eranskina). Agindu horren bidez, deialdia egiten zaie Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2019-2020 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (2019ko maiatzaren 13ko EHAA, 88. zk.).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 14a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

ERANSKINA

DIRULAGUNTZEN ESLEIPENA

Elkarte/Federazio eskatzailea	Esleitutako dirulaguntza
Kristau Eskola	894.828,00
Euskal Herriko Ikastolak	280.978,00
Ikasgiltza	17.288,00
Eusko Ikastola Batza	114.533,00
AICE	24.403,00